



AGURAINGO TAEKWONDO HEZI ETA HAZI TALDEAREKIN LANKIDETZA HITZARMENA 2024. URTERAKO

BILDUTA

Batetik, Raúl LOPEZ DE URALDE BALTASAR jauna, NAN zenbakia 18.595.998S duena, Aguraingo Udaleko Alkatea den aldetik,

Bestetik, Teodoro MUÑOZ ARROYO jauna, NAN zenbakia 7.819.079E duena, Taekwondo Hezi eta Hazi taldearen (IFK: G-01429471) Lehendakaria eta ordezkaria den aldetik,

ADIERAZTEN DUTE

LEHENA.- Aguraingo Udalaren helburuetako bat kirola sustatzea dela

BIGARRENA.- Taekwondo Hezi eta Hazi Taldea, egun egoitza Fueros kalea 19-7 aretoan duena, erakunde pribatua, izaera juridikoduna eta irabazteko asmorik gabea dela, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan CD0003862 zenbakiarekin eta Aguraingo Erakundearen Erregistroan 29 zenbakiarekin izena emanda dagoela eta helburu nagusia Taekwondoa bultzatzea eta sustatzea duela.

HIRUGARRENA.- Aguraingo Udal txit gorenak Taekwondo Hezi eta Hazi Taldea aintzatesten duela honek bere historian egiaztatutako jardunbide luzeagatik, kirolaren bitartez garapen sozialerako plataforma delarik

Hori dela eta, eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 232. eta 233. artikuluen arabera, ondokoa adostu dute:

HITZARTZEN DUTE

Lankidetzeta-hitzarmen honen XEDEA da Udalak Taekwondo Hezi eta Hazi Taldeari 2024. urterako emango dion diru-laguntza zehaztea, elkarteak egingo dituen jardueren dagokienez, baita udal kirol-instalazioak doan erabiltzeko lagapena zehaztea ere, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta legezko testu horren Arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan, Aguraingo Udalaren diru-laguntzen Ordenantza Orokorrean eta diru-laguntzen Plan Estrategikoan ezarritakoarekin eta hurrengo baldintzekin bat etorrita:



KLAUSULAK

LEHENA.- Aguraingo Udalak, 2024. urteko aurrekontuaren barruan, 341.481.002 Kirol-taldeei Transferentziak partida izendunaren barruan, Taekwondo Hezi eta Hazi Taldearentzat 1.610,00 €-ko gehieneko diru-laguntza esleitu du.

Aipatu diru-laguntzak 2023-2024 denboraldiari dagozkion jarduerak egitetik eratorritako gastuak ordaintzeko baliatuko da.

BIGARRENA.- Erakunde bakoitzak konpromiso hauek hartuko ditu bere gain:

A) AGURAINGO UDALA

Laguntza ekonomikoaren esleipena

- 1.610,00 €-ko gehieneko laguntza ekonomikoa esleitu du, eta 600,00 € ordainduko da 2024ko martxoan, 500,00 € 2024 ekainean, eta 510,00 € gordeko dira abendurako, emandako diru-laguntzak justifikatu ondoren ordaintzeko.
 - Esleitutako laguntza ekonomikoak klubak egiten dituen kirol-jarduerak sortzen dituzten gastuen zati bat estaliko du, eta honako hauek baloratuko dira behin betiko laguntza ekonomikorako:
 - Federazio-gastuak. Eta, zehazki, honako hauei buruzkoak: klubaren eta taldeen inskripzioa; jokalarien, entrenatzaileen eta ordezkarien lizentziak;
 - Kirolari bakoitzeko laguntza
 - 30,00 € Arabako Foru Aldundiko kirol federatua edo eskola-kirolean inskribatutako 18 urtetik beherako kirolari bakoitzeko, alebin kategoriatik aurrera (benjamin eta aurrebenjamin kategoriak izan ezik)
 - 15,00 € kirol federatua izena emanda dagoen 18 urtetik gorako klubeko kirolari bakoitzeko
- * Oharra: kontzeptu horrengatik sortzen diren kopuruak gastu hauetara bideratu beharko dira, eta justifikatu egin beharko dira:
- Monitore eta/edo entrenatzaileen kostua
 - Jardueraren berezko kirol-materiala eskuratzea
 - Kirolarien joan-etorriak eta garraioa lehiaketa ofizialetarako

b) Kirol Instalazioen erabileraren lagapena

- Igerileku estaliaren instalazioko 1 gimnasioa doan lagako du, aldez aurretik eskatuta eta Udalak berak jarritako mugekin, eta beste elkarteren batek behar ez baditu.



B) TAEKWONDO HEZI ETA HAZI TALDEA

- Diruz lagundutako jarduerak egitea
- Irailaren 30a baino lehen, egindako jardueren memoria teknikoa eta memoria ekonomikoa aurkeztea, gastuak eta diru-sarrerak barne (baita helburu bererako jasotako diru-laguntzak ere).
- Diruz lagunduko diren kirolari guztien federatu-lizentzia edo Arabako Foru Aldundiaren Eskola Kirolean izena emanda duela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztea.
- Diruz lagundutako jardueren gastuen egiaztagiria aurkeztea, dagozkion fakturak aurkeztuta.
- Udalari laguntzea boluntarioak jarrita, hala eskatzen duten jardueretan. 2024. urtean, hauek izango dira:
 - o 2 laguntzaile izango dira Agurain Herri Lasterketan, irailaren 29an, igandean
- Instalazioak klubarekin lotutako jarduera eta helburuetarako erabiltzea, erabilera horren erantzule izanik.

IRIZPIDE LINGUISTIKOAK

- Kirol taldeak jardueren eskaintza ele bitan zabalduko ditu: kartelak, liburuxkak, eskutitzak... Justifikazioa egiteko orduan eskaintza zabaltzeko eta jardueretan erabilitako hainbat eredu aurkeztuko ditu.
- Kirol taldeak eremu publikoan antolatzen dituen kirol-jardueretan (txapelketak, lasterketak...) euskara gaztelaniarekin batera erabiliko du: aurkezpenak, megafonia ... Zuriketan honen inguruko informazioa aipatuko du.
- Hitzarmena sinatzerakoan, Kirol taldeak Udalari jakinaraziko dio zein jarduera antolatu dituen eta zein hizkuntzatan ematen ari diren. Horretarako Udalak prestatutako plantilla bat baliatuko du. Helburu nagusia lehen hezkuntzako umeei eskaintza erabat euskaraz egitea izanik



- Hitzarmena sinatzerakoan Kirol taldeak bere euskara planean azaltzen diren zein helburu lantzen ari den aipatuko du, eta zein da egungo egoera. Horretarako Udalak prestatutako plantilla bat baliatuko dute.
- Kirol taldeak Udalaren ordezkari izango den kirolean euskara sustatzeko dinamizatzaillearen lana erraztu beharko du, eta behar duen arreta eskaini.
- Udalak euskara ikasketak ordainduko dizkie (diru-laguntza bidez) Agurainen errolatutako kirol begiraleei, beti ere, Udalak onartutako euskara ikasteko diru-laguntza deialdiaren oinarriekin bat etorriz
- Helburu hauen jarraipena, kirolean euskara sustatzeko dinamizatzaillearen ardura izango da.

BERDINTASUN IRIZPIDEAK

- Kartelen eta diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueren sustapen-elementu gisa egiten diren testuen edukietako hizkuntza eta irudiak modu ez-sexistan erabiltzea. Emakumeen edozein irudi diskriminatzaile edo estereotipo sexista saihestea, eta berdintasunaren, presentzia orekatuaren, aniztasunaren, erantzunkidetasunaren eta rol eta genero-identitate aniztasunaren balioak dituen irudia sustatzea.
- Diruz lagundutako programa, proiektu edo jardueretan genero-ikuspegia txerta dadin sustatzea.
- Diru-laguntza jasotzen duen elkarteak animatzea berdintasunaren, hizkuntza ez-sexistaren eta abarren arloko prestakuntza sustatzera, Udalak urtean zehar antolatzen dituen ikastaro eta/edo tailerren bidez.
- Egindako jardueren memorian, jardueretan parte hartu duten pertsonen kopurua jasotzen duen informazioa jaso beharko da, sexuaren arabera bereizita.

HIRUGARRENA. - Hitzarmen honetan ezarritako diru-laguntza bateragarria izango da helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik (nazionalak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko beste erakunde batzuetakoak) datozenak, hargatik eragotzi gabe diru-laguntza edo laguntza horiek arautzen dituen araudiak ezar



dezakeena. Hala ere, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak, bakarka edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu diruz lagundutako jardueren kostua.

LAUGARRENA.- Taekwondo Hezi eta Hazi Taldearen jarduera eten edo desagertzen bada, edo hitzarmen honetan jasotako klausulak betetzen ez badira, suntsiarazitzat joko da, eta, hala badagokio, ordaindutako zenbatekoak itzuli beharko ditu, legeriaren arabera, bai eta instalazioak libre utzi ere, baldintza eta egoera egokietan.

BOSGARRENA.- Era berean, Udalak hitzarmen hau mugaeguna baino lehen indarririk gabe uzteko ahalmena izango du, interes publikoko zirkunstantziek justifikatzen badute.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek 2024. urteko indarraldia izango du, gainerako klausuletan adierazitako baldintzak betetzen diren bitartean eta bi alderdietako batek berariaz uko egiten ez dion bitartean.

Agurainen, 2024ko martxoaren 14 (e)an



ALKATEA

HEZI ETA HAZI TALDEA